



III. “TARTALO GASTEIZ” POSTER LEHIAKETA

Oinarriak

2026an hirugarren edizioa beteko duen lehiaketa honekin ingelesezko eduki fantastikoen sorkuntza sustatu nahi da, arte eta hizkuntza hezkuntzaren ekintza osagarri gisa.

PARTE-HARTZEA

Lehiaketan 2009tik Aurrera jaiotako nazionalitate, jatorri eta bizileku guztietako autoreek parte hartu ahal dute.

Partaide bakoitzak poster **bat** aurkeztu ahal izango du.

Lana aurkezterakoan, partaideak adierazten du hau bere osotasunean **originala eta argitaratugabea** dela, eta ez dela beste edonon saritua izan epaiaren momenturarte.

Poster bakoitza persona batek edo bik egina izango da gehienez, eta inolaz ere ezingo da zenbaki hau gainditu. Garrantzitsua da azpimarratzea banaka edo taldean izanik ere, soilik poster bakar bat egin ahal daitekeela.

AURKEZTEKO MODUA

Parte-hartzea posta elektronikoz egingo da helbide honen bitartez: **concursos@tartalogasteiz.com**, mezuaren gaian **Póster** hitza adieraziz.

Partaide bakoitzak mezu bakar bat bidaliko du bi atxikitako bi artxiborekin: posterra eta plika digitala. Bi artxiboek nobeletaren izena izan beharko dute eta, beraz, artxibo motaren bitartez ezberdinduko dira (ikusirik honako adibide hau):

- Posterrak PDF formatua izango du, adibidez: El Marciano.**pdf**.
- Plika digitalak PDF formatua izango du, adibidez: El Marciano.**pdf**.

Posterrak erlantz zabalgarrak balitu, bideo bat ere bidali ahalko litzateke.

- Bideoak mp4 formatua izango du, adibidez: El Marciano.**mp4**.

Plika digitalak partaidearen **datu** pertsonalak (egiazkoak eta egiaztagarriak) edukiko ditu: izen-abizenak, telefono zenbakia, posta-elektroniko helbidea, posta helbidea eta NAN, pasaporte edo antzeko baten eskaneatze edo argazkia.



Aurkezteko epea **2026ko maiatzaren 16an** amaitzen da. Behin epea amaituta, ez da partaideekin hartu-emanik izango.

BALDINTZA FORMALAK

Posterrean agertzen diren testuak **ingelesez** idatziak egon behar dute.

Hauen gaiek **fantasiazkoan** izan beharko dute jatorria, hala nola, zientzia fikzioan, fantasian, errealismo magikoan, terrorean, gotikoan, thriller apokaliptikoan, distopian, historia alternatiboan, fikzio bitxian, fantawesternean, etab.

Hedaduraz irudi baten berdina izango dira.

Parte-hartzaileek beraiek erabakiko dute zer **konposizio** edo material erabiliko duten proiekturako eta hauek kontuan izango dira lana ebaluatzeko garaian. Erabilitako imajinak originalak izan behar dira, edo, bestela, irudi-deretxorik gabe egon. Posterra **ezin da firmatu** eta ezin ditu egilearen identitatea jakitera emngo duten datuak izan.

Lehen egiaztapen-fasean egiaztatuko da baldintza hauek betetzen direla: horietara egokitzen ez diren lanak ebaluazio-fasea baino lehen baztertuko dira.

EPAIMAHAI A

Epaimahai espezializatu batek ebaluatuko ditu lanak, beste zenbait **irizpideren** artean, lanaren originaltasuna, estetika, testuaren konplexutasuna eta ingelesaren erabilera kontuan hartuz.

Epaimahaiak, artearen eta akademiaren inguruko pertsonen osatua, libreki ebatziko ditu deliberazio garaian sortu ahal diren intzidentzia guztiak, honako oinarri hauetan aurreikusi ez diren horiek barne.

Honen **epaia** apelaezina izango da. Halaber, hala erabakiz gero, sariak eman gabe utz daitezke.

Irailan zehar, lehiaketaren web orrialdean erakutxiko den dokumentu batean epaimahaiak, bere ustetan, kalitate handiagoa duten lanak nabarmenduko ditu, hauen autoretza jakitera eman gabe. Poster **finalista** hauen artean egongo dira garaileak.

Epaia, sarituei posta elektronikoz edo telefonoz aldez aurretik jakinaraziko zaiena, **azaroaren 21ean** emango da jakitera, "Tartalo". Fantasiazkoaren IV. Astea Arteetan-en programaren barruko ekitaldi batean.

Sari banaketaren ostean, epaia Tartaloren web orrialdean **argitaratu** eta bertako hedabideetan zabalduko da.



SARIAK

Garaileek **diploma**, **garaikur** bat, eta honako diru-**sariak** jasoko dituzte (zenbateko hauei indarrean dagoen araudiak zehazten duen zerga atxikipena kenduko zaie):

2015 eta 2018 artean jaioak:

- Lehen saria: 250 €.
- Bigarren saria: 100 €.

2009 eta 2014 artean jaioak:

- Lehen saria: 250 €.
- Bigarren saria: 100 €.

Gainera, poster sarituak *The Fantastic in the Arts* seriearen laugarren **liburukian** argitaratuko dira. Hau fantasiakoak arteetan duen presentziarekin lotura duten artisten eta akademikoen lanek osatuko dute.

Lehiaketaren epaia argitaratu eta gehienez bi urte igaro artean, bi lan sarituak antolakuntzaren **esku** geratuko dira. Honek, lanak oroitzapenezko liburuan argitaratzeaz gain, erakunde kolaboratzaileen bitartekoetan ere erreproduzitu ahal izango ditu, autore direnez apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak bere 14. artikuluan gordetzen dizkien eskubide besterezinei kalterik egin gabe.

BERME ETA ERANTZUKIZUNAK

Aurreko guztiarekin loturik, eta lehiaketaren garapenean ohiz kanpoko egoerak ekiditeko asmoz, antolakuntzak honakoaz ohartarazten du:

1. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak **onartzea** dakar. Hortaz, aurreikusi gabeko intzidentzia guztiak lehiaketaren mesedetan ebatziko ditu antolakuntzak.
2. Lehiaketan lana aurkezten duten pertsonak izango dira hauen edukiaren **arduradun** legalak.
3. Partaide bakoitzaren betebeharra izango da posta elektronikoz aurkeztutako nobeletak jasandako edozein aldaketa (esaterako, beste lehiaketa batean saritua izatea) **jakinaraztea** aurkezteko epea amaitu bitartean.
4. Nobeleten egile diren pertsonak lehiaketaren antolakuntza **salbuestera** derrigortzen dira honek lanen aurkezpen garaian hemen egindako adierazpenen zehaztasun eta egitasun ezaren ondorioz jasan lezaken edozein kalteren aurrean. Adierazpen hauek sariak banatu arte egongo dira indarrean.